

World Press Photo erakusketak aurreko edizioan baino mila bisita gehiago izan ditu

Orotara, 11.260 pertsonak ikusi dute Montehermoso kulturunean jarritako erakusketa, zeina XIV. ediziora iritsi baita aurten

Hilabete ikusgai egon ondoren, joan den igandean itxi zen World Press Photo 2016 erakusketa. Aurreko edizioaren aldean, 1.075 bisitari gehiago izan ditu eta, orotara, 11.260 pertsonak ikusi dute Montehermoso kulturuneko ur-biltegian jarritako bilduma.

2003az geroztik aurkeztu ohi da Gasteizen prentsa-argazkilaritzaren arloko nazioarteko lehiaketarik garrantzitsuen den hori, eta urtetik urtera harrera hobea du.

Bereziki nabarmentzekoa da bisitaldi gidatuen arrakasta, aurten lehen aldiz eskaini baitira. Ia 2.000 pertsona baliatu dira aukera horretaz, horien artean, ikasle ugari (Urkide, Asafes, Olabide, Carmelitas-Sagrado Corazón, Ekialde, Koldo Mitxelena, Egibide, Arte eta Diseinuko goi-mailako Eskola, etab.).

Las visitas al World Press Photo se incrementan en más de un millar respecto a la edición anterior

En total, 11.260 personas han visitado la muestra expuesta en el Centro Cultural Montehermoso que este año cumplía su XIV edición

La World Press Photo 2016 que finalizó este domingo, ha visto incrementada la asistencia de visitantes en 1.075 respecto a la edición anterior, siendo un total de 11.260 personas las que han acudido al antiguo depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso en la que ha estado un mes expuesta.

La muestra internacional de fotoperiodismo más importante, aumenta de esta manera su aceptación en Vitoria-Gasteiz donde se exhibe desde 2003.

Destaca especialmente el éxito de las visitas guiadas que, por primera vez se han incluido en la oferta de la exposición. Así, casi 2.000 personas, incluidos numerosos alumnos y alumnas de centros escolares, han optado por esta modalidad, (más de 40 grupos como Urkide, Asafes, Olabide, Carmelitas, Sagrado Corazón, Ekialde, Koldo Mitxelena, Egibide, Escuela de Artes y Superior de Diseño, etc.).